

## ZORIONAK, MILA!

1

Hau da gaurko notizia  
badauka bere grazia  
zorionezko klasia.  
Mila jaio zan eguna da ta  
egin oihu, garraxia.  
Loiolatar arrazia  
zuhaitz balitz arkasia;  
baserri baten hazia.

3

Gero hagin postizuak  
garbi, eder ta lisuak;  
Paristik ekarritakuak.  
Zaharrak kenduta, barriak jarri  
hortan ditu jenixuak.  
Arintzen ditu pixuak,  
eta argitzen itsuak;  
ondo hartu abixuak!

5

Laugarren dator saria:  
Harrizko abixaria,  
azpirako xaxaria.  
Ezinik dagon bateri jarten  
deutso bixkor kikaria.  
Gero a zer miraria!  
Oiloloka kantaria  
txita pilo ugaria.

7

Honeek dira gure bromak  
nornahi poztuteko onak;  
bardin andra ta gizonak.  
Egunon, Mila, txalo ta kantu  
zuretzat dira danonak;  
Hemengo gazte t'amonak  
bihotz-bihotzez emonak,  
zuri, Mila, ZORIONAK!

2

Nok asmau erregalua  
bere gogo betekua,  
lagunak emondakua?  
Haize kontuan beti dabil ta  
lehenengo da barbantzua;  
Bardin gordin zein antzua,  
laster joko dau zantzua:  
Saltoka dabil mantsua.

4

Hirugarrena gogorra:  
kordel ta guzti zigorra,  
nori astindu mokorra.  
Gazte ta nausi, danak darabiltz  
hara, hona eta horra.  
Bardin itsua nahiz gorra,  
ordaindu behar dau zorra:  
hilak biztuten bixkorra.

6

Bosgarren musikitarra  
sortzeko irri ta parra;  
badago horren beharra.  
Txistu ta soinu, kantu ta dantza  
pozten dau etxe-baztarra.  
Honi zirri, hari zarra.  
Gero danok tirritarra;  
Nok jo honeri adarra?